

U30 ALDAKETALDIA

Larreko Mahaia larrialdi ekologikoari erantzuteko Gipuzkoako eragile sozial eta sindikal desberdinek sortutako elkargunea da. Parte hartzaileak ELA, LAB, STEILAS, CCOO, ESK, EHNE, Ikasle Sindikatua, Greenpeace, Eguzki, Errausketaren Aurkako Mugimendua, Gurasos, Ernai, Fridays For Future eta Extinction Rebellion dira. Ekimen honetarako Gipuzkoako herri mailako beste hainbat eragile batu zaizkigu, baita Bizkaiko beste hainbeste eta Zaldibar Argitu! Ere.

Datorren otsailaren 6an urte bat beteko da Zaldibarko luiziak Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileak azpian harrapatu zituenetik. Ez dago zalantzarik luizi hura agintari publikoen eta Verter Recycling enpresa pribatuaren kudeaketa negargarriaren ondorio izan zela. Horregatik, ELAk, EHES Kartako gainontzeko kideekin eta Zaldibar Argitu! plataformarekin batera, herri akusazio gisa aurkeztuko da Euskal Herrian azken 40 urtetan izandako hondamendirik larriena argitzeko epaiketan.

Urtemuga hurbildu ahala eta epaiketaren erritmoaren arabera, badakigu ingurumenaren gaia berriz ere mahai gainean jarriko dela, bai mediatikoki baita kalean ere. Larreko Mahaitik olatu hori aprobetxatu nahi dugu larrialdi ekologikoaren inguruko kontzientzia aktibatu eta jendea mobilizatzeko eta era berean, olatu hori indartu, Zaldibarko luiziaren urtemugarako aurreikusten diren ekintzei begira.

Horretarako, urtarrilaren 30erako, luiziaren urtemuga baino astebete lehenago, mobilizazio egun bat deitu dugu U30 ALDAKETALDIA izenarekin. Mobilizazio hauek auzo, ikastetxe, herri zein eskualdeka antolatuko dira. Aldarrikapen egun desentralizatua izaki, antolatzaileen esku egongo da aldarrikapen konkretuen aukeraketa eta mobilizazio eredua, Zaldibarki erreferentzia eginez, zein tokian tokiko problematikari helduz: erraustegia, metroa, AHTa, zaborren kudeaketa, kutsadura, alternatiben sustapena, etab. Beti ere, larrialdi ekologikoarekin lotuta salaketa eta aldarrikapen ekintzen baitan.

Azken finean, Zaldibarko luizia eragin zuen oinarri bera da erraustegia, AHTa edo Donostiako metroa martxan jarri zituena. Sistema biozida honek etekin ekonomikoa jartzen du guztiaren aurretik, baita langile klasearen bizitza eta bizi baldintzak ere.

Hain zuzen ere, ekosistemarekin harreman jasangarri baten eta planeta mugatu batean aberastasun pilaketa mugagabearen arteko talka etengabea salatu eta posizionatu nahi dugu, hau da, bizitzaren eta kapitalaren arteko gatazkan. Bizitzarik gabe, merkaturik ere ez legokeenez, bizitza mantentzen da sistema honen “B” aldearekin: landa eremuak hiriguneak mantentzen dituen moduan, hegoalde globalak iparraldea eta lan erreproduktiboak produktiboa.

Era berean, pertsoez gain, ingurumena esplotatu beharra dauka sistema kapitalistak salgaiak ekoitzi eta etengabeko hazkunde bat mantentzeko. Soilik logika horren baitan uler daiteke pandemia eta krisi garaiotan oinarrizko zerbitzu eta beharrak asetzeko baino, 10.228 milioi euro bideratu nahi izatea EAEn AHT, Petronor, Iberdrola eta enparauentzat, nondik eta murrizketak eta datozen belaunaldien zorpetzea baldintza gisa dituen Europako Next Generation funtsetik. Ez 2008ko krisitik ezta pandemiatik ere, badirudi ez dugula ezer ikasi.

Lehenengo konfinamenduan ikusi genuen nola borondatea dagoenean agintariak erabakiak hartu eta sistemaren makineria gelditu dezaketen. Argi utziz, gainontzeko kasu guztietan: etxegabetzeak, erreforma fiskala, erresidentziak, osasungintza, aurrekontuak, pentsioak, hezkuntza eta abarretan, ezer egin ez badute, nahi izan ez dutelako izan dela. Itxialdiaren ondorioz ere, ikusi ahal izan dugu nola airearen kutsadura nabarmen murriztu zen egun gutxi batzuen buruan eta naturak eta animaliek denbora luzez ukatu zitzaizen espazioa berrartu zuten.

Hala ere, kontuan izan behar da gobernuek krisitik ateratzeko hartzen dituzten neurriak sarritan gehiegizko kontsumoan eta natur baliabideen gehiegizko ustiapenean oinarrituak izaten direla. Baita ere, zeinen axolagabeak garen sortzen ditugun hondakinekin eta nola bete ditugun itsaso, ibai eta mendialdeak maskarilaz.

Pandemiak agerian utzi badu ere, lehendik ere ohartarazi gintuzten komunitate zientifikoak, OMSeK, IPBESeK eta abarrek bioaniztasuna dela animalia jatorriko gaitzentzako txertorik onena. Azken hamarkadetan, biderkatu egin dira zoonosi

(animalietatik gizakietara transmititutako gaitza) kasuak: HIESA, ebola, zika... baita elikagaien ekoizpen eredu industrial eta abereen monolaborantza genetikoaren ondorioz sortuak: hegazti-gripea, zerri-gripea, behi eroen gaitza eta abar. Honi guztiari, batu behar zaio Lurraren beroketak hegoaldeko zatik geneuzkan gaitz asko geroz eta iparralderago agertzea eragiten ari dela. Esaterako, *dengue* eta malaria.

Pentsa, petrolioan ere izan zuen eragina pandemiak, mundu mailako burtsetan negatiboan kotizatzen helderaino. Hala ere, sistemaren beste hutsune askorekin bezala, COVIDak egin zuena, aspalditik jakina den erregai fosilen agortze prozesua agerian uztea izan zen. 1972ko Meadows txostenak iragarri zuen eta Nazioarteko Energia Agentziak konfirmatu: petrolioaren gailurra 2005an izan zen. Geroztik erregai honen erauzketa errentagarritasuna galtzen ari da modu esponentzialean. Esaterako, 80.ko hamarkadan barril bakar baten energiaren bidez, 100 petrolio barril ateratzeko. Gaur egun, barril batekin 15 ateratzen dira. Gasa eta ikatza ere, bide beretik doaz.

Mundu osoko garraioaren %90a erregai fosilen bidez egiten da. Espainiar estatuan lanera joateko 57 minutuko joan etorria egiten da batez besteko. Distantzia kilometrotan baino, denboran neurtzera igaro gara, hortik kontuak ateratu.

Bizi eredu hau mantentzeko alternatiba iraunkor bakarra energia berriztagarrietarako trantsizioa litzateke, baina horretarako ere berandu gabiltza. Eguzkia, haizea, mareak... hor daude, baina hauek aprobetxatzeko azpiegiturak behar dira, eraikitzeko energia eskerga behar dutenak, baita mineralak ere, mugatuak diren mineralak.

Aipatu erregai fosilen eta mineralen (kobrea, litioa, fosfata, koltana...) jatorrian Siria, Libia, Iran, Irak, Venezuela, Colombia, Nigeria, Rwanda, Afganistan, Sahara... daude. Prozesu kolonial eta neokolonialen bitartez mehatze eta zabortege erraldoi gisara erabiliak izan diren herrialdeak. Egun, gerran daudenak. Batzuetan gerra "formalak" dira, armada eta gerra adierazpen ofizialekin. Beste batzuetan itzaleko gerrateak, enpresa pribatuen injerentzia eta eskubide zapalketen bidezkoak. Baina beti interes berdinak daude atzean. Enpresa horietako batzuk IBEX35ean kotizatzen dute. Badira "euskaldunak" ere, transnazional batek dirua ez den aberririk izan badezake. Esaterako, Petronor, Iberdrola, BBVA.

Hain zuzen, herrialde horietatik datoz Europaren arazo nagusietako bat eta eskuin muturraren jo puntua diren errefuxiatuak. Beraien herrietan eragin ditugun gerrateetatik

edota aldaketa klimatikoaren ondorioz beraien bizilekuak jada ez direlako bizigarri kanporatuak izan direnak, errefuxiatu klimatiko deritzenak. Hesiak eta militarizatutako mugak jartzen dizkiegu pertsoneri, baina zabalik ditugu ateak eurei arpilatutako ondasunentzat. Izan ere, herrialde aberats gisa hartzen dugu Europa, nahiz eta lehengaietan defizitariora izan eta hondakinetan eszedentarioa.

Testuinguru honetan, erraza da Trump eskuindar populistaren hitzak irenstea: “mundu honetan ez gara denok kabitzen”. Eta arrazoi du, horrela ez behintzat. Baina arazoa ez da ez garelako denok kabitzen, batzuentzat lekurik uzten ez duen sistema baizik. Ingurumenaren kolapsoaren perspektibatik, zeina dagoeneko saihestezina den, galdera ez da mundua aldatzea nahi dugun, ezinbestean aldatzen ari delako, galdera da norantza eman nahi dugun aldaketa hori.

Alde batetik kapitalismo “berdea”-ren aukera daukagu. Edo hobe esanda, Naomi Kleinek “hondamendiaren kapitalismoa” deritzona, hau da, egoera latzenetik ere etekina ateratzen duena (Desokupa, Amazon itxialdian, mugetako segurtasun pribatuko enpresak). Bere proposamenen artean, betetzen ez den eta beteta ere nahiko ez litzatekeen Pariseko akordioa, auto elektrikoa, digitalizazioa, 5G, robotizazioa... daude. Baina dauzkagun baliabide, teknologia, mineral eta azpiegituren aurrekontu bat eginez gero, kontuak ez zaizkigu ateratzen. Edo bai, ateratzen dira baina pribilegiatu gutxi batzuentzako baldin bada, langile klasea ekuaziotik kanpo utziz gero. Finean, ekofaxismoa.

Bestetik, planetaren muga biofisikoak aitortzea daukagu. Onartzea, larrialdi egoera batean gaudela eta gizakiok, ezinbestean, energia gutxiagorekin bizitzen ikasi beharko dugula. Birpentsatu beharko dugu zenbat den “nahikoa”. Horrek, eredu ekonomikoaren aldaketa dakar, esfera mugatuagoak, bertakoagoak.

Agerikoa da, materialki, desazkunde ekonomiko saihestezin bateruntz goazela. Gakoa da, ea nola egingo dugun. Dagokiona baino gehiago duen harek, nekez egingo diolako uko besteek faltan duten horri. Horregatik, nahitaezkoa da aktibazio eta saretze sozial bat ematea, anitza baina helburu konpartitu honen baitan artikulatua. Aldaketa sistemikoak ez direlako bakarrik ematen, gatazka berezkoa dute.

Orain da ekiteko momentua. Horregatik, urtarilaren 30ean galdu ezinezko zita bat dugu, nork bere herri, auzo zein eskualdean, ezinbestean aldatzera behartuta dagoen mundu hau, sinesten dugun norabidean aldatzeko.

Gipuzkoa mailan abenduko konpromisoak:

HERRIA	EKINTZA	ANTOLATZAILEA
Donostia	U30ean, 17.00etan, manifestazioa: Tabakalera- Bilbo plaza-Getaria kalea- Boulevard	Denon artean
Donostia	Metroa salatzeko ekintza hondartzan	Satorralaiak
Donostia	Zuhaitz-landaketa	Haritzalde
Lasarte-Oria	U11 Zaldibar: Zona Cero liburuaren aurkezpena+U30ean oraindik zehaztu gabeko ekintza	Aire Garbia
Andoain	U30 elkarretaratzea	Ipar Haizea
Goierri	Liburu aurkezpena+Ibilaldia Amundarain errekan barrena	Landarlan
Orereta	Elkarretaratzea: AHT, Amazon, Alzate eta Erraustegia	Hainbat talde
Tolosa	Irratsaioa+liburu aurkezpena	Eguzki eta beste
Orio	Zehazteke	EAT
Villabona-Zizurkil-Asteasu	Zehazteke	
Oñati	Zehazteke	
Urola Bailara	Zehazteke	Urola Bizirik eta Zumaia Natur Elkarte
Usurbil	Zehazteke	



-ZALDIBAR GOGORATUZ-

ONDO BIZI
ETA BIZITZEN UZTEKO

U30ALDAKETALDIA



PLANETA **HEMEN** HASTEN DELAKO